

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuaren jarduera garrantzitsuena ekoizpena da eta beharrezkoa da gure proiektua aurrera ateratzeko. Produktuaren funtzionamendua egokia den zihurtatzea ere oso garrantzitsua da, bestela arrakasta gutxiago edukiko genuke. Mobila kargatzeko beste alternatiba bat eskeintzen dugu, ingurumenarekin arduratsuagoa dena eta elektrizitate gutxiago behar duena; epe luzean ekonomikoki irabazten atera zaitezke. Egin behar dugun beste gauza garrantzitsu bat diseinu erakargarri bat egitea da.

Hiru funtsezko jarduera garrantzitsu ditugu eta gure lehentasunaren arabera ondorengo modura ordenatuko genituzke. Lehentasun handiena ekoizpenak izango luke, ondoren arazoak konpontzeak izango luke lehentasuna eta amaitzeko plataforma edo sareko jarduerak.